BALKANAK. Mazedoniako UCKri laguntzen diotenei jokaera hori txarra dela erran die EEBBetako presidenteak

Bakea sendotu eta NATOk Kosovotik alde egitea helburutzat jo du Bushek

«Elkarrekin etorri gara; elkarrekin joango gara», esan du, KFORekin segituko duela azaltzeko

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Kosovon, NATO eta KFOR indarretako tropetan zabalduta dauden 6.000 soldadu estatubatuarrei atzo egin zien bisitaldiaren karietara, George W. Bush Estatu Batuetako presidenteak dei bat egin zien Mazedoniako agintariei eta UCK Askapen Nazionalerako Armadakoei, iragan uztailaren 5ean hitzartutako su-etena errespeta dezaten. «Gaur egun daukagun erronka nagusia da Mazedoniakoa, bertan armak hartu dituzten albaniarrek herri honen bake egoera eta egonkortasuna arriskuan jartzen baitute», aderazi zuen Bushek, Kosovo hegoaldean kokatutako Camp Bondsteel kanpamendu militarrean egindako hitzaldian.

Atzoko bisitaldian, Bushek nazioarteko arduradun zibil eta militarrekin bakarrik zuen topo egin, baina, hala eta guztiz ere, bai Mazedoniako bai Kosovoko arduradun politikoei mezuak helarazi nahi izan zizkien.

Mazedoniako gatazka eslaviar gehiengoaren eta albaniar gutxiengoaren artean gerra zibil bilaka ez dadin, EEBBetako presidenteak bi aldeetako buruzagi politikoei bake biderako urratsei berriz ekiteko zinki galdegin zien. «Aukeratuak izan diren agintariei dei egiten diet Europako Batasuneko ordezkari Francois Leotarden eta gure enbaxadore James Pardewen laguntzarekin euren arteko ezadostasunak gaindi ditzaten, Mazedoniari baketzea eta Europan integratzea bermatuko dion akordio bat lortzeko gisan», adierazi zuen Bushek. Ildo honetan, Mazedoniako UCK laguntzen duten Kosovoko albaniarrei jokaera hori txarra dela ohartarazi zien EEBBetako presidenteak. «Hemen, Kosovon, Mazedoniako UCKren matxinada sustatzen dutenek Balkan osoetako albaniar guztien interesen kontra dihardute», erran zuen Bushek. «Argi egon behar du EEBBek gaitzesten dituztela demokrazia eta zuzenbide estatuaren aurka indarkeria erabiltzen edo sustatzen dutenak», gaineratu zuen.



J. SCOTT APPLEWHITE / AP

EEBBetako presidente George W. Bush —erdian— eta Laura Bush, atzo, Camp Bondsteelgo basean.

Tokiko agintarien eskuko bakea

Mazedoniako gatazka aipagai nagusi izan bazuen ere, Kosovo bera hizpide izan zuen Bushek. EEBBekin NATO Aliantza Atlantikoko kide diren eta Kosovon soldaduak dauzkaten beste herrietako agintariei Balkanetan bakea sendotzeko ahaleginak areagotu ditzaten galdegin zien.

Izan ere, Bushen iritziz, «gure helburua da ahal bezain laster etor dadin bakea iraunkorra izango den eguna, zeinetan demokratikoki aukeratutako tokiko agintariek boterea hartuko duten eta NATOk alde egin ahal izango duen».

Haatik, Etxe Zuriko egoiliarraren ustez, «lan asko badago oraindik egiteko» egun hori etorri arte. «EEBBen eta bere aliatuen tropak elkarrekin etorri ziren Bosniarat eta Kosovorat, eta elkarrekin joango dira», esan zuen Etxe Zuriko buruak. Hitz horiekin gezurtatu zuen EEBBetako presidentzialetako bere kanpaina denboran azaldutako jarrera, hots, estatubatuar tropek «gerra etnikoen» geldiarazteko ekin behar dutela NATOren baitan, eta ez, ordea, bakea bermatzeko, SFOR eta KFOR indarretan partaide gisa.

6.000 soldadu estatubatuarrak oraingoz geratzekoak dira

Jarrera horiek kezka sortu zuten nazioarteko indarretako beste kideen artean, baina presidente kargua hartu ondotik Buschek ahaleginak egin ditu lasaitzeko.

Gaur egun NATO erakundean sartuta dauden 16 herritako 42.000 soldadu inguru banatuta daude Balkanetako herrietan. Soldadu horietako 6.000tik gora EEBBetako Armadakoak dira.

Erasoa agintzeko eskatu dio Mazedoniako lehen ministroak presidenteari

Agentziak | **BRUSELA-SKOPJE**

Mazedoniako lehen ministro Ljubco Georgievskik gerrillari albaniarren kontrako erasoa bultzatzeko agintzeko eskatu zion atzo Boris Trajkovski presidenteari. Operazio horren xedeak okupatutako lurraldeak berreskuratzea izan behar du, Georgievskiren arabera.

Bien bitartean, albaniarrek Mazedonia mendebaldean beste fronte bat ireki dutela adierazi dute. Atzo noizbehinkako borrokak izan ziren Tetovotik gertu Mazedoniako Segurtasun Indarren eta UCKko kideen artean.

Bestalde, Mazedoniako Gobernuak egindako akusazioak gaitzetsi eta ukatu zituen NATOk atzo, UCK Askapen Nazionaleko Armada Mazedoniako gerrilla albaniarrari armak ematen ez dizkiola esanez. Adierazpenak Aliantza Atlantikoko idazkari nagusi George Robertsonek egin zituen atzo Bruselan. «Guztiz faltsuak dira adierazpen horiek; ez dute oinarririk», agertu zuen Robertsonek; «NATOK ez die laguntza material edo moralik eman talde horiei, eta ez die emango».

«Probokazioak» amaitu

Mazedoniako Armada eta gerrilla albaniarraren artean hitzartutako su-etena zenbait aldiz hautsi da azken egunotan. Atzo bertan jakinarazi zenez, Tetovo inguruan izandako azken borroketan hiru lagunek galdu dute bizia.

«Probokazioak eta gehiegikeriak onartezinak dira, eta eten egin behar dira», adierazi zuen NATOko idazkari nagusiak, gerrilla albaniarrak bultzatutako kanpaina gogoan.

CONFECCIONES
PINEDO
Era guztietako jaietarako jantziak
San Antonio K./ 11 - GASTEIZ